

## **PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA**

Gu, Maria, Andoni, Mahmud eta Irati gara, Health W produktuaren saltzaileak, Health enpresaren nagusiak. Pultsera hau egitea erabaki genuen guretzako pertsonen ongizatea ezinbestekoa delako. Pultsera hau, nagusiki, helduentzat edo arazo kroniko dituztenentzat zuzenduta dago, haien gaixotasunen kontrol bat eraman dezaten.

Gure produktuaren izena Health W (wristband) da, eta honen esanahia osasunerako eskumuturrekoa da.

Eskumuturreko honen helburua pertsonen barneko hainbat faktore neurtu eta gainera, informazioa mugikorrera bidaltzea da. Horrekin batera, pultserak neurtzen dituen ezaugarriaz gain, aukeratu nahi dituzten gainontzeko datuak sartu ditzazkete bertan.

Gure pultsera hainbat lekutan erosi ahalko da, farmazietan eta gure web horrian; <https://hernandezandoni.wixsite.com/healthwristband>.

